



**INPAKTU
MEMORIA
2021**



gaztenpresa
fundazioa

ENTITATE FUNDATZAILEA



ERAKUNDE HAUEKIN BATERA FINANTZATUA



LAGUNTZAILEAK



SARE HAUETAN PARTE HARTZEN DUGU



Aurkibidea

01 ATARIKOA

02 GAZTENPRESARI BURUZ

03 NOLA SORTU NAHI DUGU INPAKTUA

- Zer ekarpen egiten du Gaztenpresak.
- Zer inpaktu sortu nahi dugu.

04 2021eko GURE INPAKTUA, ZENBAKITAN

- Nori laguntzen diogu.
- Ekintzaileengan duen inpaktua.
- Lagundutako pertsonen sorturiko negozio berrien inpaktua.
- Gizartean izaniko inpaktua.
- Inpaktuaren gaineko laburpen-infografia.

05 ONDORIOAK

01

ATARIKOA



Gaztenpresa LABORAL Kutxaren gizarte-lana osatzen duen fundazio bat da. Proiektu arimadun bat gara, eta laguntza eskuzabala eskaintzen diegu negozioa bakarrik eta beren kabuz sortzeko zailtasun handiagoak izango lituzketen pertsonari. **Guztira 27 urte baino gehiago daramatzagu eginkizun horretan, eta harro esaten dugu 6.200 enpresa eta 11.000 lanpostu baino gehiago sortzen lagundu dugula Euskadin eta Nafarroan.**

Gaztenpresan, seriotasun handiz heltzen diogu hobetzeari, ekin nahi duten pertsonari behar bezala laguntzeko. Horretarako, hainbat audiotzeta egiten ditugu; esate baterako, finantza-audiotzeta eta araudia betearaztekoa. Gaur egungo testuinguruan, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda nazioarteko esparrutzat hartzen da eta garrantzi handia ari da hartzen, orobat, izaera eta helburu sozial nabarmena duten erakundeetan inpaktuaren¹ arabera kudeaketa. Hori horrela, fundazioan urrats bat gehiago egin nahi izan genuen, eta gure asmoari buruzko hausnarketa sakon bati ekin genion: zer egiten dugun eta zer aldaketa eragiten ditugun pertsonengan, ekintzailtza-proiektuetan eta, oro har, gizartean.

2021ean, hausnarketa horri heldu diogu, hurbileko inguruneari egiten diogun ekarpena xehetasun handiagoz zehazteko eta gure inguruan aldaketa positiboak nola eragiten ditugun hobeto ulertzeko, guztia ere sortutako inpaktu sozialean eraginkortasun handiagoa lortze aldera. Hori guztia 2030 Agendan definitutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatuta dago.

lido horretan, gizarte-inpaktua ebaluatzeak zenbait erronka ekarri dizkigu: aldaketan irismena, ekarpena eta sakontasuna zehaztea; kanpo-eraginak aztertzea; eta adierazleak eta neurketa-tresnak definitzea, gure jarduerarekin sortzen dugun inpaktu¹ sozialaren berri eman ahal izateko.

Inpaktu bidezko kudeaketarako abiapuntu gisa, gure asmoa berrikusi dugu; hau da, zertarako galderaren erantzuna. Hausnarketaren ondorioz, ñabardura batzuk egin ditugu, inpaktua sortzera gehiago bideraturik jarduteko. Hau da:

Gaztenpresan, ekin nahi duten gure inguruko pertsonari laguntzen diegu, ahalik eta arrakasta-aukera handienekin egin dezaten, enplegua sortzearen bidez aberastasuna eraginez.

Ondoren, gure jardueraren onuradunengan zer aldaketa eragiten ditugun zehaztu dugu, eta, aldaketa horiei lehentasuna eman ondoren, inpaktu-adierazle batzuk finkatu ditugu, hura monitorizatu eta kudeatzeko. Hori horrela, ebidentzia batez ere anekdotiko batetik datuen ebidentziara igaro nahi dugu, eta, hala, inpaktu positibo handiagoa nola eta zertan sor dezakegun jakin ahalko dugu.

¹ Inpaktutzat hartzen ditugu erakunde batek pertsonengan, inguruko komunitatean, ingurumenean eta, oro har, gizartean eragiten dituen aldaketak, izan horiek positiboak edo negatiboak.

02

GAZTENPRESARI BURUZ

Gaztenpresa 1994an sortu zuen LABORAL Kutxako profesional boluntarioen talde batek, inguruko gazte langabeei laguntzeko ikuspegi aitzindariaren eta beharraren ondorioz; krisi ekonomikoko eta langabezia-maila handiko garaiak ziren, bereziki gazteen artean.



11.404
lanpostu sortu dira



6.264
enpresa sortu dira



23.353
eskaera
erantzun dira

183
milioi euroko
fakturazioa

1.297
enpresa artatu,
sendotzen

186
mentoring-
arreman

1.297
tailer
egin dira

8.010
PRO
kontsulta

27 urte hauetan, ekintzaile izan nahi duten pertsoneri laguntzen, eskaintzen ditugun zerbitzuak aldatuz joan dira, espiritu ekintzailea duen pertsona zentroan mantentzeari utzi gabe eta Fundazioa gidatzen duten balioekin lan eginez.



JON BIXENTE
DE SANTIAGO
MAHASTIA

Beti ere **ekintzaileak**
eta haien proiektuak
izaten ditugu ardatz

2021ean, lehen aipatu dugun bezala, urrats bat harago egin nahi izan genuen, eta hausnarketa sakon bati ekin genion gure asmoari buruz; hau da, zer egiten dugun eta zer aldaketa eragiten ditugun, bai pertsonengan, bai proiektuetan, bai gizartean oro har. Hausnarketa-ariketa hori aukera ederra izan da gure asmoa ñabartzeko, eta, horretaz gainera, zehaztu eta lehenetsi egin ditugu hurrengo urteetan artatu nahi dugun ekintzailtza-ekosistemaren premietan egin beharreko ahaleginak. Era berean, lortu beharreko inpaktu-helburuak ezarri ditugu, eta ulertu dugu Garapen Jasangarrirako zer Helburutan egiten dugun ekarpenik handiena.

1.- Bizi-proiektua hobetzen laguntzea.

Ekintzaileak bere bizi-proiektua garatu ahal izateko, funtsezkoa da enplegua lortzea, eta, horretarako, funtsezkoa da haren negozioaren bideragarritasun ekonomikoa. Ildo horretan, laguntza pertsonalizatua eskaintzen diogu, modu positiboan laguntzeko hura lortzen.

2.- Negozioa finkatzen laguntzea.

Negozio bat irekitzea bezain garrantzitsua da merkatuan finkatzea. Horretarako, prestakuntza praktikoetan eta laguntzan ipintzen dugu arreta, negozioak kudeatzeko eta ekintzailtzarako gaitasunak hobetu ditzaten.

3.- Aberastasuna eragitea eta desberdintasuna murriztea, enplegua indartzen duten enpresak sortuz.

Ondotxo dakigu ekintza horiek guztiek badutela eraginik **ekintzailtza-ekosisteman**, eta, horrenbestez, erantzun esplizitua eta zehatza eman nahi genion ekosistema horren premia nagusiari.

Modu positiboan lagundu nahi diogu bertako ekonomiari, eta gure ingurunean ekintzailtza-kultura sortu. Horretarako, oso garrantzitsua da gure ustez gizartea sensibilizatzea, bai enpresaburuaren figuraren balioaz, bai tokiko ekintzailtzak bizi-proiektu inpaktudun bat garatzeko bitarteko gisa duen potentzialaz.




LEIRE URETA
NUKKA
ARROPA
MERKATARITZA

Garapen Jasangarrirako zer Helbururi laguntzen diogu?

Identifikatutako beharrei erantzuteko ezarri ditugun helburu zehatz horiek dira, hain zuzen ere, **2030 Agendan definitutako Garapen Jasangarrirako Helburuei egiten diegun ekarpena.**

Zehazki, eta Euskadirentzat egin zen zehaztapena erreferentziazat hartuta, helburu hau ezarri dugu: Maila Anitzeko Euskal 2030 Agendako eta NBEren 2030 Agendaren helburu hauei laguntzea:



Gaztenpresak batez ere GJH hauei eragiten die **(5, 8 eta 10)**

Gaztenpresak GJH hauei eragiten die bigarren mailan **(4, 11, 12 eta 17)**



BULLFITNESS,S.COOP GIMNASIOA

NOLA SORTU NAHI DUGU INPAKTUA



Zer inpaktu eta nola eragiten dugun ulertzeko, Aldaketaren Teoria aplikatu dugu. Metodologia horri esker, erakunde baten ekintzen eta horiek sortzen duten inpaktuaren arteko kausa-efektua aztertu ahal izan dugu. Horretarako, Gaztenpresak bideratzen dituen baliabideak, egiten dituen jarduerak eta horiek ekintzaileengan, proiektuetan eta gizartean —hau da, beren ingurunean— eragiten dituzten aldaketak hartu dira kontuan. Sortutako inpaktu horiek epe laburrean zein luzean aztertu dira, eta talde onuradunetan eragiten duten aldaketaren sakontasuna kontuan hartuta lehenetsi dira.

Aldaketa horietako bakoitzerako jarraipen-adierazleak zehaztu dira, Gaztenpresak sortzen duen inpaktua zenbatesteko eta monitorizatzeko. Kontrol hori erabakigarria da Fundazioaren jardura kudeatzeko, eta, horretaz gainera, harekin sortzen dugun inpaktua ere gestionatzeko.

Egindako analisiaren ondoren, eta, haren gaineko zehaztasunetan sartu aurretik, esan dezakegu Fundazioan:

Konpromisoa hartzen dugula Euskadin eta Nafarroan kultura ekintzailea errazteko, gure taldeko profesionalak, boluntarioak eta aliantzak kontuan hartuta; izan ere, haiekin batera laguntzen diegu ekiten hasi nahi dioten inguruko pertsonei, arrakastaz egin dezaten.

Negozia edozein unetan dagoela ere, ekintzaileak arrazoizko prestakuntza izango duela eskuragarri, eta bere esanetara izango ditu gure tutoreak negozio-eredu egokia aurkitzen laguntzeko, bai eta finantzaketa eta profesional espezializatuak lortzeko ere, hurrengo urratsetan laguntza eskaintzeko mentorizazioaren bidez.

Ekintzaileak bidaia bat hasiko du, eta, bidaia horretan, arrakasta izateko aukerekin ekiteak zer inplikatzan duen jabetzen lagunduko diogu, pertsonalki eta profesionalki haziko da, eta bizi-baldintzak hobetuko ditu. Hori, aldi berean, lagungarria izango da ekintzailetzaren balioa eta ekarpena bistaratzeko Euskadin eta Nafarroan; auzoak biziberrituko dira, eta, azken batean, gure ingurunearen garapen jasangarriari lagunduko zaio, bai eta kalitatezko enplegua sortu ere.

ZER EKARPEN EGITEN DU GAZTENPRESAK

Irudi honetan, Gaztenpresak ekintzaileei bere negozioaren faseetan laguntzeko egiten dituen jardura nagusiak jasotzen dira.



Zerbitzu horiek, lehen aipatu bezala, eboluzionatuz joan dira urteek aurrera egin ahala. Gaur egun, babes horren barruan sartzen dira hasierako laguntza —ekintzaileak negozio-idea bat duenean—, harik eta sortutako negozioa finkatzeraino. Horretarako, Gaztenpresako profesionalek eta mentore-taldeak

prestakuntza praktikoa eta aholkularitza espezializatua ematen dute, eta guztiak ere ekintzaileen premia zehatzetan zentratzen dira.

2021

Emaitzak:



ZER INPAKTU SORTU NAHI DUGU

Gaztenpresaren jarduera ekintzaileetan eta haien negozioetan oinarritzen da, baina inpaktu zuzena du orobat haien toki-komunitatean. Fundazioak eskaintzen dituen baliabideetatik eta egiten dituen jardueretatik eratorritako aldaketa nagusien artean, hauek nabarmentzen dira:

TALDE ONURADUNA

Aldaketak EPE LABURREAN

EPE LUZERAKO aldaketak lortzen dira



EKINTZAILEAK

- Ekintzaile izatearen errealitateaz eta inplikazioez jabetzea.
- Garapen profesionala erraztea.
- Bizitzeko adina diru-sarrera izatea.
- Lan-merkatuan sartzea (langabezian badago).



NEGOZIO BERRIAK

- Negozioaren arrakasta-aukerak optimizatzea edo porrota saihestea.
- Beste finantzaketa-iturri batzuk nekez lortuko lituzketen tokiko ekintzailtza-proiektuak finantzatzea.



GURE INGURUA

- Enplegua sortzea.
- Gizartean eta ingurumenean eragina duten ekintzailtza-kopurua handitzea.

- Finantza-autonomia handiagoa.
- Bizi-kalitatea eta gaitasunetikiko konfiantza hobetzea.

- Iraupen handiagoko eta/edo errentagarritasun handiagoko proiektuak.

- Enpresek ingurunearen aberastasunean egiten duten ekarpenari balioa ematea.
- Ekintzaileekin identifikatutako gizartea.
- Auzoak biziberritzea eta toki-kontsumoarekin konpromiso handiagoa duen gizartea.

ETA, HAIEN ONDORIOZ...

2021eko GURE INPAKTUA, ZENBAKITAN

NORI LAGUNTZEN DIOGU

Aurrez deskribatu ditugun Gaztenpresaren jardueretan ikus daitekeenez, ekintzaileei beren negozioak abian jartzen eta finkatzen laguntzen diegu.

2021ean, hau izan zen Gaztenpresarekin negozioak ireki zituzten pertsonen profila:

%56 Gizonak

%44 Emakumeak

40 urte Batez besteko adina

%73 Unibertsitate ikasketarik gabe

%27 Unibertsitate ikasketekin

%44 enplegua hobetu dute

%43 langabeziatik datoz

%13 beste kasu batzuk

Haien **negozioek** ezaugarri hauek zituzten:

JARDUERA SEKTOREA



%3

INDUSTRIA



%76

ZERBITZUAK



%20

MERKATARITZA



%1

NEKAZARITZA
ETA ABELTZAINITZA

FORMA JURIDIKOA



%74

BANAKAKOAK



%26

SOZIJATEAK


25% Koop

75% S.L.

Lagundutako negozioen % 17k gizarte- eta ingurumen-inpaktu positiboa dute, besteak beste, honako arlo hauetan jarduteagatik: enplegua eta prestakuntza, osasuna eta ongizatea, ingurumena eta/edo garapen komunitarioa —hau da, kirolari, arteari eta kulturari lotuta—.

Ekintzaileengan, haien negozioetan eta gizartean zer inpaktu eragiten dugun jakin ahal izateko, bi inkesta egin ditugu, helburu gisa harturik egiaztatzea ea fundazioa ari den betetzen gure helburua; hau da, **ekin nahi duten inguruko pertsonen laguntzea, ahalik eta arrakasta-aukera handienekin egin dezaten, enplegua sortzearen bidez aberastasuna eraginez**. Haietako bat negozioak abian

jartzeko unean dauden ekintzaileei zuzenduta dago, eta bestea, berriz, beren negozioak azken 5 urteetan abiarazi dituzten eta fundazioaren laguntza jaso duten ekintzaileei. Bien helburua da zehatz-mehatz jakitea zer neurritan gertatzen den Gaztenpresaren laguntzari esker sorturiko inpaktua. Jakin nahi dugu zer pertzepzio duten ekitean izaten dituzten aldaketei eta negozioen bilakaerari buruz.




EKINTZAILEENGAN DUEN INPAKTUA

Ekintzaile bakoitzaren kasuan, hasiera-hasieratik laguntzen diogu **garapen profesionala** errazten. **Errealitateari eta ekiteko inplikazioei buruz duen esperientzia-ezagutzak** eta, horrekin batera, jasotako prestakuntzak erraztu egiten dute **lan-merkatuan txertatzea**, bai eta **bizi-proiektu duina izateko diru-sarrera nahikoak izatea** ere, negozioa abian jartzeari esker.

Epe laburrerako inpaktu zehatz horiek epe luzera **finantza-autonomia handiagoa** izatea eta/edo haien **bizi-kalitatea eta gaitasunetan konfiantza hobetzea** eragiten dute.

Espero dugun inpaktua benetan lortzen dugun aztertzeko, bereizi egingo ditugu, batetik, negozioaren lehen urtean dauden ekintzaileen emaitzak eta, bestetik, urtebete eta bost urte bitarte diharduten ekintzaileenak.


Ekintzaileengan antzemandako aldaketak, Negozioa abiaraztean eta lehen negozio-urtean.



Gure laguntzatik, zerk jasotzen du balorazio onena?

- 1 Ziurgabetasuna murrizteak
- 2 Nire negozio-plana egiteak
- 3 Banku-finantzaketa lortzeak
- 4 Nire ibilbide-orria antolatzeak
- 5 Gestio burokratikoak egiteak
- 6 Kontaktuak egiteak
- 7 Trebetasun berriak eskuratzeak
- 8 Nire negozioarako kokapen zuzena aukeratzeak
- 9 Dirulaguntzak eskatzeak


Nabarmenak dira **ekintzaileen bizi-kalitatean izandako aldaketak.**



Ekintzaileengan antzemandako aldaketak, negozioarekin urtebete eta bost urte daramatzatenean kasuan

Bizi-kalitatean izaniko inpaktua urteek aurrera egin ahala mantentzen ote den ikusteko, negozioak hasi zituztenetik bitzta pertsonalean eta profesionalean izan dituzten aldaketa zehatzei buruz galdetu diegu. Azpimarratzekoa da hobera egin dutela aztertutako parametro gehientsuenek, negozioaren lehen urtean dauden pertsonen emandako balioekin alderatuta.

Ekintzailetzak urteak igaro ondoren izan duen alderdi negatibo nagusia honako hau izan da: gora egin du lana eta bitzta pertsonala kontziliatzeko prozesua okertu egin dela adierazi duten pertsonen ehunekoak, lehen urtean % 25 izatetik hurrengoetan % 32 izatera igaro baita.



LAGUNDUTAKO PERTSONEK SORTURIKO NEGOZIO BERRIEN INPAKTUA

Gaztenpresara etortzen diren pertsona guztiak negozio ideia garatu samar batekin egiten dute. Eskaintzen ditugun zerbitzuek pertsonarengan ez ezik, **negozio ekintzaileengan** ere badute eragina. Epe laburrean, pertsonarekin lan egiten dugu bere proiektu **ekintzaileak arrakasta izateko aukera handienak izan ditzan**. Horrek, batzuetan, denbora-porrota ekiditea dakar, eta, horrekin, bizi-kalitateak okerrera egin ez dezan lortzea. Gainera, Fundazioa eta Laboral Kutxa elkarrengandik hurbil daudenez, tokiko ekimen-proiektuak finantzatu ahal izango lirarteke, **beste finantziazio-iturri batzuk nekez izango lituzketenak**.

Epe luzeko lan honen emaitzak ikusi dira laguntzen ditugun proiektu ekintzaileen **biziraupen-indize handiengan**, beste negozio berri batzuen aldean.

Eragin hori aztertzeko, 1 eta 5 urte bitarteko negozioak dituzten ekintzaileei egindako inkestan oinarritu gara. Hauek dira ateratako ondorio nagusiak:



Gaztenpresak lagundutako proiektuen % 90ek irekita jarraitzen du lehen urtearen ondoren. Negozioa itxi zutenen artean, lagundutako pertsonen % 60k beste enplegu bat aurkitu dute, eta % 80k berriz ekitea pentsatu dute.



Enpresen % 72k jarraitzen du finantzaketatik bost urtera, eta Euskadiko batez bestekoa % 44 da (Eustaten arabera).



%62k fakturazioa handitu du eta % 5ek soilik murriztu.



%55ek enplegu gehiago ere sortu du, ekintzailearen enpleguaz gainera. Beste 1,4 lanpostu sortzen dira (batez ere 30 eta 50 urte bitarteko emakumeak).


GIZARTEAN IZANIKO INPAKTUA

Pertsoneri eta haien negozioei laguntzeak inpaktu positiboa sortzen du negozio horien **toki-ingurunean**. Fundazioaren historian zehar laguntza jaso duten enpresek **hamaika mila lanpostu baino gehiago** sortu dituzte. Azken urteotan, lagundutako negozioiek **gizarte- eta ingurumen-inpaktu positiboa** izatea ere bilatzen dugu, eta bereziki balioesten ditugu eragin-potentzial handieneko sektoreetan dihardutenak.

Epe luzera, Gaztenpresaren jardueraren helburua da **gizarteak aintzatestea eta balioestea enpresek beren ingurunearen aberastasunari egiten dioten ekarpena**. Horri esker, **tokiko komunitatea hobeto identifika daiteke ekintzaileekin**, eta, azken batean, lagungarria izan daiteke **tokiko kontsumoarekin konpromiso handiagoa duten herritarrak** sortzeko. Kontsumo-joeretan gertatzen ari den aldaketari eginiko ekarpen horri esker, biziberritu egiten dira lagundutako pertsonen negozioak ezartzen ari diren herrietako auzoak.

Lrudi honetan, lagundutako pertsonen 2021ean abiarazitako negozioiek tokiko komunitateari egindako ekarpenaren datu nagusiak jasotzen dira. Nabarmenezkoa da geografia- eta belaunaldi-aniztasuna; izan ere, pertsona horien % 13 migratzaileak dira, eta % 26, berriz, 45 urtetik gorakoak. Ikus daitekeenez, negozio horiek geografikoki banatuta daude, hainbat neurritako udalerrietan.





2021

278
enpresa547
postu

Ekintzaileen enplegua (emakumeak)	%44
Migratzaileak	%13
35 urtetik beherakoak	%29
45 urtetik beherakoak	%26

NEGOZIOEN KOKAPENA:


Probintziako hiriburuak	%38
Hiriburuak ez diren eta 15.000 biztanle baino gehiago dituzten hiriak	%33
Hiriburuak ez diren eta 15.000 biztanle gutxiago dituzten hiriak	%29

GIZARTE ETA INGURUMEN
INPAKTUA DUTEN NEGOZIO BERRIAK**%17**

Lagundutako pertsonen sortutako negozioek ingurunean aberastasuna sortzeko egiten duten ekarpena balioestean, kontuan izan dezakegu abian jartzeko egin duten inbertsioa. Hori 71.200 €-koa da enpresa bakoitzeko, eta, ordaindutako zergen bidez diru-sarrera publikoak handitzeaz gainera, zuzenean dinamizatzen du toki-ekonomia.

Lagundutako pertsonen negozioek duten inpaktuaren berri izateko, lehen aldiz neurtu dugu negozio horietako zenbat diren gizartean eragin handia izan dezaketen sektoreetakoak. Zeharkako ekarpen horren helburua da ekintzaile horiek gure lurraldearen garapen jasangarriari laguntzeko egiten duten apustua indartzea. Une honetan, sortutako enpresen %17 dira.

INPAKTUAREN GAINEKO LABURPEN INFOGRAFIA



PERTSONA EKINTZAILEAK (merkaturatzean eta 1. urtean):

%43

Langabeziatik dator.

%40

Bizi-kalitate ekonomikoa **hobetzen** du, okerrera egin duen %5aren aldean.

%60

Gustuko duen horretan lan egiten du.

NEGOZIO BERRIAK:

%72

Enpresak 5 urterekin bizi dira.

547

Sortutako lanpostuak.
%44 emakumeak.

GURE INGURUNEA:

%17

Gizartean eta ingurumenean eragin handia duten sektoreetako proiektuak.

€71.200

Zergen bidez tokiko ekonomia dinamizatzen duen batez besteko inbertsioa.

Azaldu berri ditugun inpaktu-datuekin eta Gaztenpresak konpondu nahi dituen gizarte-premia kontuan hartuta, ondorio hauek atera ditzakegu:

- **Laguntza-prozesuak funtzionatzen du, eta betetzen da ekintzailtza arrakasta-aukera handienekin egiteko helburua.** Lagundutako lau proiektutatik batek enpresa berri bat eratzen du amaieran. Porrota saihestea da Gaztenpresak esplizituki bilatzen duen inpaktuetao bat.
- Eratutako enpresen ehuneko horrek txikia eman dezake, baina, behar bezala aztertzeo, **beharrezkoa da fundazioak lagundutako enpresen iraupen-indizeari erreparatzea.** Eratu eta bost urtera zenbat enpresak irauten duten ebaluatzen badugu, Gaztenpresak lagundutako negozio berrien % 72k bere jarduerarekin jarraitzen du, eta Euskadi osoan, berriz, % 44koa da portzentaje hori.
- **Ekintzailtza-prozesu osoan laguntzeak eragin positiboa du ekintzailearen enplegarritasuna indartzen duten trebetasunak eta gaitasunak eskuratzen, bai eta pertsona horiek lan-merkatuan txertatzen ere.** Hamar lagunetik lauk adierazi dute uste baino eskumen gehiago eskuratu dituztela, eta, haien proiektua bideragarria izatea lortu ez zutenen artean, % 60 lanean ari dira gaur egun, eta % 80k adierazi dute berriro ekingo luketela.
- **Ekintzaileak garrantzi handiagoo ematen die Gaztenpresaren laguntzaren alderdi ukigarriei ukiezinei baino.** Hori horrela, balorazio onena jaso duten alderdien artean ageri dira ziurgabetasuna murriztea, negozio-plana egitea, banku-finantzaketa lortzea, negozioaren ibilbide-orria antolatzea edo gestio burokratikoak egitea.


- **Bizi-kalitateari dagokionez, hobetu egiten da, batez ere erre realizazio pertsonal eta finantza-autonomia handiagoo izateagatik.** % 10ek bakarrik adierazi du laneo edo ekonomiao egonkortasun txikiagoo duela, eta % 5ek esan du bere bizi-kalitateak okerrera egin duela maila ekonomiaoan.

- Bizi-kalitate hori hobetu egiten da urteek aurrera egin ahala. Inkestan parte hartu duten ekintzaileek adierazi dute hasi zirenean baino egoera hobean daudela alderdi guztietan, eta haien lan -eta ekonomia-egonkortasunak ez duela izan aldaketa handirik lana eta bizitza pertsonala kontziliatzeari dagokionez izan ezik.

- **Gaztenpresaren lanak toki-ingurunearen garapen ekonomiaoari eta emakumeen eta belaunaldien arteo enplegua sortzeari laguntzen dio.** Negozioen % 55ek enplegu berriak sortu ditu, eta horien % 77 emakumeak dira.

- **Sortutako negozio bakoitzarekin, ingurunearen aberastasuna sortzen laguntzen da zuzenean.** Enplegua sortzeaz gainera, nabarmentzekoo da enpresa bakoitzeko batez besteko inbertsioa (71.200 €); izan ere, tokiko ekonomia dinamizatzea eta Administrazio Publikoak zuzeneko diru-sarrera handiagooak izatea eragiten du (zergen bidez).

Ondorio horiek indartu egiten dute 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin dugun konpromisoo, eta, zehazki, ekarpen nabarmena egiten zaie genero-berdintasunari, lan duinari eta hazkunde ekonomiaoari eta desberdintasunen murrizketari —hau da, Garapen Jasangarrirako 5., 8. eta 10. Helburuak—. Bigarren maila batean, gure prestakuntza-programek ekarpen gehiago ere egiten dute, hala nola kalitatezko hezkuntza (4. GJH), hiri eta komunitate jasangarriak (11. GJH), ekoizpen eta kontsumo arduratsuak (12. GJH) eta aliantzak sortzen laguntzea, garapen jasangarrirako helburuak lortzeko (17. GJH).



 900 101 143

info@gaztenpresa.org

www.gaztenpresa.org

